

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ELTZIEGOKO UDALA

#### Jarduera lizentzia ematea Familia Monje Amestoy SL sozietateari

Familia Monje Amestoy SL enpresak jarduera lizentzia eskatu du Eltziegoko (Araba) 10 poligonoko 266 lurzatian jatorri deitura kalifikatuko upategia jarri eta ardoa egin, biltegiratu, ondu, botiletan sartu eta merkaturatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren 58.1 eta 2. artikuluetan ezarritakoa betez (lege hori apirilaren 23ko 7/2012 Legeak aldatu zuen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 12ko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko), aipatutako espedientea jendaurrean jarriko da hamabost egun balioduneko epean, ediktu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, jarduera horrek era batera edo bestera eragiten diela uste dutenek aukera izan dezaten egoki jotzen dituzten alegazioak aurkezteko.

Eltziego, 2020ko urtarrilaren 10a

*Alkatea*

*LUIS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE*